

Pilota ♦ Jorge Nagoreren kontra jokatu du larunbatean, Muskizen

Agirre: «Uneotan dudan konfiantza da balio duena»

Aparteko arazorik gabe aukeratu zituzten atzo bina pilota

Enekoitz Telleria / Donostia

MUSKIZEN, Donibane pilota-
lekuan, zuten hitzordua atzo
Jorge Nagorek eta Imanol
Agirrek. Larunbatean jokatu-
ko dute bertan Euskal Herri-
ko buruz buruko final-laur-
denetako partidua —Fernan-
do Arretxeren kontra jo-
katuko du irabazleak—. Fer-
nando Tapiak otarrean jarri-
tako pilotak ez zuten aparte-
ko arazorik sortu. 105,4 eta
105,7 gramoko bi aukeratu
zituen Jorge Nagorek, eta
104,7 eta 106,6ko beste bi
Imanol Agirrek. «Gustura gel-
ditu gara biok. Agian baxu
samarrek dira, eta, beldurra-
gatik-edo, fuerteenak otarre-
an utzi ditugu. Pilota politik
direla uste dut», adierazi
zuen Imanol Agirrek.

Inaxio Errandonea buruz
burukotik kanporatu berri
du Agirrek —11 tantotan utzi
zuen hilaren 17an Berga-
ran— eta Jon Bazetari irabazi
zion aurretik. Euskal Herriko
txapelketako ustekabe nagusietako bat izan da aurrelari
artearra final-laurdenetan
ikustea, baina bere iritzia
bestelakoa da: «Badakit bu-
ruz buru ongi jokatu hor
goian egon naitekeela, hemen
pilotari handiak daudela
badakidan arren».

Prestakuntza fisiko bikaina
azaldu izan du beti Agirrek



Imanol Agirre, edonori irabazteko gai dela erakusten ari da aurtan.

—ez da alferrik Soin Hezkun-
tzarako Euskal Institutuan
ikasten ari (SHEE)—, baina
bestelakoak izan dira haren
arazoak erantzukizun handi-
ko partidua jokatu behar
izan dituenen. Bi arloak
aztertu zituen atzo Euskadi
Irratian egindako adierazpe-
netan: «Fisikoki, aspaldi hasi
nintzen prestatzen eta zaila
da horrenbeste denbora
ondo irautea. Dena dela,

konfiantzaz hobeto nago eta,
azken batean, hori da gehien
balio duena, uneotan dudan
konfiantza. Goi mailan sar-
tzeke sekulako aukera da
niretzat».

«Gakoa sake erretoan egongo da»

Nola Imanol Agirre hala Jor-
ge Nagore aurrelariak sake-
an ongi moldatzen dira

—Nagore batik bat—, baina
biak aurrelariak izanda,
errestoa izango da erabaki-
garria Agirreraren esanetan:
«Sake erretoan nahikoa
ondo nabil ezkerrez. Egia da
ez direla sake berdina Ina-
xiorena eta Jorgerena, baina
konfiantzaz nabil. Hor egon-
go da gakoa, sake erretoan.
Ondoen errestatzen duenak,
horrek irabaziko du parti-
dua».

txokoa

Asier Olaizolak pilota sendagoak aukeratu zituen Bernak baino

Jaiari Jai frontoian, Lekun-
berrin, bildu ziren atzo Asier
Olaizola eta Berna. Asperen
manomanistako partidua
dute larunbatean eta pilo-
tak aukeratu zituzten atzo.
Aimar anaiaren laguntzare-
kin, 105,3 eta 106 gramoko
pilotak aukeratu zituen
Asier Olaizolak. Lekunberri-
ko frontoiaren azkartasunaz
eta bere eskuin kolpeaz
baliatu nahi du Olaizolak
eta egokiak iruditu zitzaiz-
kion bi pilota horiek bere

asmoak gauzatzeko. Ber-
nak, 103,1 eta 106ko bi
hartu zituen. Olaizolaren
jokoa oztopatzea izango du
helburu. Titin-Esain eta
Capellan-Gofi II.a partidue-
tako pilotak gaur aukera-
tuko dituzte. Logroño (12:00)
lehenengoek eta Eibarren (12:00)
bigarrenek. Igandean jokatu
dira bi partidua horiek.

Ezkurra berriro Zeberio II.a eta Eizagirreren kontra

Joan den ostegunean joki-
tutako estelar berbera da ka-
sik gaur Hernaniko Galarre-

tan jokatu dena: Ezkurra
eta Urretabizkaia II.a Zebe-
rio II.a eta Eizagirreren kon-
tra. Zubeldiarekin jokatu
zuen Ezkurra joan den as-
tean, eta 40-31 irabazi zu-
ten. Ezkurra bikain jokatu
zuen partidua hura.

Pala jaialdia Bilboko Deportivon

Osteguneroko pala jaialdia
jokatu du gaur Bilbon, De-
portivo frontoian. Estelarra
erakagargarria da: Urkia eta
Rekalde Unda I.aren eta
Juan Pablaren kontra. Polita
izan liteke lehia aurreko ko-
adroetan.

gaurko partidua

GALARRETA. 16:00.

• Zeberio III.a-Etxeberria II.a /
Agirresarobe-Badiola • Ezkurra-
Urretabizkaia II.a / Zeberio II.a-
Eizagirre • Altuna I.a-Zubeldia /
Elizalde-Etxabe • Bitoria-Imaz /
Kalonge-Mendizabal.

DEPORTIVO. 17:00.

• Zeberio-Ziskar I.a / Urkijo-
Arzelus • Urkia-Rekalde / Unda
I.a-Juan Pablo • Daniel-Leunda /
Iriondo-Ibarra.

Rallyak ♦

Bugalskik irabazi du Kataluniako Rallya, ustekabea emanda

Auriol eta Makinenek bukatu dute haren atzetik, eta Sainz erretiratu egin da

Agentziak / Lloret de Mar

RALLYEN historian inoiz
inork lortu ez duena lortu
du Citroen etxeko Philippe
Bugalski frantziarrak: Kit
Car batekin —bi litroko
autoa— World Rally Car
auto ahalguztidunei ira-
baztea mundialeko proba
batean. Kataluniako Rall-
yan gertatu da hori. Lehe-
nengo egunetik hasi ziren
ondo Citroenekoak. Jesus
Puras jarri zen lider lehe-
nengo etapan, erretiratu
eta Bugalski taldekideak
hartu zuen haren lekua
herenegun, atzo eutsi egin
zion lehenengo postuari.
Citroen etxeak lortu duen
lehenengo garaipena da
atzokoa, eta Bugalski bos-
garren jarri da mundialeko
sailkapenean.

Faboritoen artean, Di-
dier Auriol (Toyota) eta
Tommi Makinen egungo
txapelduna (Mitsubishi)
izan dira maila txukuna
eman duten bakarrak
—bigarren eta hirugarren
amaitu dute sailkapene-
an—. Colin McRae (Ford)
herenegun erretiratu egin
zen eta Carlos Sainz bera
gorabehera handiekin ibili
da rally osoan. Atzoko az-
ken etapan, esaterako, zu-
latuak izan zituen hiruga-
rren eta bosgarren proban,
eta alternadorearen uhala
apurtu zuen azkenekoan.
Erretiratu egin zen. Sain-
zen iritziak, Korsikan joki-
tuko den hurrengo proban
ere, litekeena da Kit Car
batek irabaztea.

Sailkapenak

Kataluniako Rallya

- BUGALSKI, P. (Cit) ... 4:13:45
- AURIOL, D. (Toy) 31ra
- MAKINEN, T. (Mit) 2:21era
- LOIX, F. (Mit) 2:35era
- BURNS, R. (Sub) 4:01era

Mundiala

- MAKINEN, T. (Mit) 26 p.
- AURIOL, D. (Toy) 23p.
- McRAE, C. (Ford) 20p.
- SAINZ, C (Toy) 16p.
- BUGALSKI, P. (Cit) 10p.